

**2017ko AZAROAREN 2ko 5/17 ZENBAKIKO EZOHICO BILKURAN HARTUTAKO ERABAKIEN LABURPENA.**

**AKTA**

**1.- IRAKURTZEA ETA ONESTEA, BIDEZKOA BADA, AURREKO EZOHICO BILKURAKO AKTA (2017ko URRIAREN 16an EGINIKO 4/17 ZENBAKIKOA).**

Bilkura honen deialdiarekin batera aktaren zirriborroa bidali zenez, irakurritakotzat eman da. Bertaratuei galdetu zaie ea zuzendu beharreko akatsik hauteman dute. Ezetz erantzun dute.

Berretsi egin da urriaren 16ko 4/17 zenbakiko ezohiko bilkuraren akta.

**EBAZPENAK.**

**2.- HASIERA BATEAN ONESTEA, BIDEZKOA BADA, 2018ko UDALAREN AURREKONTUA.**

Udalbatzari aurkeztu zaio 2018ko Udal Aurrekontua. Aurrekontu horren berri eman zen Kontuen Batzorde Berezian eta Ogasuna, Ondarea, Barne Araubidea eta Langileak Informazio Batzordean, azaroaren 2an egin zen 4/17 zenbakiko ezohiko bileran. Horren derrigorrezko irizpena Osoko Bilkuran onestearen aldekoa izan zen, AEIko aldeko botoarekin, EAJ-PNVko ordezkariaren abstentzioarekin eta EH BILDUko ordezkariaren aurkako botoarekin; hala, Batzordeko gehiengo sinpleak proposatu zuen aurkeztutako 2018ko Udal Aurrekontua Osoko Bilkuran onestea, aldaketarik egin gabe.

[...]

Etabaida amaitutzat eman ondoren, alkate-udalburuak Batzordean aurkeztu zen 2018ko udal-aurrekontuaren proiektua bozkatzeko eskatu du:

Aldeko botoak: 7 (5 AEIrenak eta 2 EAJ-PNVrenak).

Aurkako botoak: 4 (Bildurenak).

Abstentzioak: batere ez.

Udalbatza osatzen duten kideen legezko kopuruaren gehiengo osoak (7) honako hau erabaki du:

LEHENENGOA.- 2018 ekitaldirako udal-aurrekontua hasiera batean onestea. Hain zuzen, honako hau da aurrekontuaren laburpena, kapituluka:

| <b>2017ko DIRU-SARRERAK, KAPITULUKA LABURTUTA</b> |                           |                    |
|---|---------------------------|--------------------|
| <b>KAPITULUA</b>                                  | <b>KAPITULUAREN IZENA</b> | <b>ZENBATEKOAK</b> |
| 1   | Zuzeneko zergak           | 377. 430           |

|   |  |                    |
|---|--|--------------------|
| 2 | Zeharkako zergak                           | 36.000             |
| 3 | Tasak eta beste diru-sarrerak batzuk       | 47.020             |
| 4 | Transferentzia arruntak                    | 1.771.850          |
| 5 | Ondare-sarrerak                            | 413.690            |
| 6 | Inbertsio errealak besterentzea            | 2.600              |
| 7 | Kapital-transferentziak                    | 2.000              |
| 8 | Finantza-aktiboak                          | 5.410              |
|   | <b>DIRU-SARREREN AURREKONTUA, GUZTIRA:</b> | <b>2.656.000 €</b> |

| <b>2017ko GASTUAK, KAPITULUKA LABURTUTA</b> |   |                    |
|---|---|--------------------|
| <b>KAPITULUA</b>                            | <b>KAPITULUAREN IZENA</b>               | <b>ZENBATEKOAK</b> |
| 1   | Langileen gastuak                       | 703.840            |
| 2   | Ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuak | 1.354.724,57       |
| 3   | Finantza-gastuak                        | 0                  |
| 4   | Transferentzia arruntak                 | 343.897            |
| 5   | Gertakizunetarako funtsa. Ezustekoak.   | 15000              |
| 6   | Inbertsio errealak                      | 136128,43          |
| 7   | Kapital-transferentziak                 | 0                  |
| 8   | Finantza-aktiboak                       | 102.410            |
|   | <b>GASTUEN AURREKONTUA GUZTIRA</b>      | <b>2.656.000 €</b> |

Deskribapen-koadroak, programak antolatuta. Aurreko aurrekontuaren aldean egin diren aldaketak eta aurrekontuaren edukia azaltzen dituen Alkatetzaren memoria.

Inbertsioen eranskina eta transferentzia arrunten eranskina, diru-laguntzak arautzeko prozedurarekin, baita sinatutako hitzarmenen zerrenda ere, dagozkien betebeharrekin, eta elkarte eta erakundeekin egindako eta aitortutako transferentzia arrunten zerrenda. 2018ko aurrekontu-plantilla, aurrekontuaren bidez hornitutako plazen zerrendarekin, langileen kostuaren banakapenarekin (programen arabera) eta guztizko kreditu-zuzkidurarekin.

2018ko Aurrekontua Gauzatzeko Udal Araua, espedientean txertatu dena. 2016ko aurrekontuaren likidazioaren laburpena, eta 2017ko lehen seihilekoaren exekuzioaren laburpena.

Bukatzeko, txosten ekonomiko eta finantzarioa; bertan adierazten dira aurreikusitako kreditu-eragiketak eta diru-sarrerak ebaluatzeko erabili diren oinarriak, eska daitezkeen betebeharrei erantzuteko nahikoa kreditu dagoela, aurrekontua behar bezala orekatuta dagoela eta 2018ko Aurrekontu Proiektuaren aurrekontu-egonkortasunari buruzko txostena. Informazio hori beharrezkoa da aurrekontuko diru-sarreraren eta gastuen saldoa finantzatzeko beharrezkoan edo

gaitasunarekin lotzeko. Finantzatzeko gaitasuna 107. 230 €-koa da, eta hori kalkulatzeko Europako Kontuen Sistemaren arauak erabili dira. Hori dela idazkari kontu-hartzaileak sinatu du.

BIGARRENA.- Erabaki hau jendaurrean ikusgai jartzea iragarkia jarritz edikuta-  
taulan, Sopuertako Udalaren webgunean eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, 15 egun  
balioduneko epean, interesdunek horiek aztertu ahal izateko eta Udalbatza Osoari  
egoki iritzitako erreklamazioak aurkeztu ahal izateko.

Jendaurrean ikusgai jartzeko epean erreklamaziorik egiten ez bada, hasieran  
onesteko erabaki hori behin betikotzat joko da. Erreklamaziorik egonez gero, Osoko  
Bilkuran ebatziko lirateke.

2018ko Aurrekontu orokorra, behin betiko onetsi ostean, Bizkaiko Aldizkari  
Ofizialean argitaratuko da, kapituluka laburtuta. Eta indarrean jarriko da behin  
betiko onespena eta kapituluka laburtutako aurrekontua argitaratzen direnean.